

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA

1. LEA/AVCen jardun esparruetan trebatzeko beka..... 2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

LEA/AVCen jardun esparruetan trebatzeko beka

2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko irailaren 26koa, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariarena, zeinaren bidez publiko egiten baitira Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-esparruko prestakuntza-beken oinarriak eta deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

[2022ko lehenengo deialdia](#)

[1. Deialdiaren Esleipena](#)

[2022ko Bigarren Deialdia](#)

[Bigarren deialdiaren esleipena](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Bekak ematea goi-mailako unibertsitate-titulua duten pertsoneri (graduatuak, lizentziadunak edo titulazio baliokidea dutenak), baldin eta beren lanbide-heziketa osatu eta garatu nahi badute Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardun-eremuei dagozkien gaietan. Horretarako, prestakuntza-praktikak egingo dituzte erakunde horren egoitzan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lehenengo beka-deialdia hutsik geratu zen, eskatzaile bakarra egon baitzen, eta eskatzaileak uko egin baitzion. Lehenengo deialdia eskatzeko epea (2022ko uztailaren 20tik abuztuaren 20ra) udaldiarekin bat etorri zenez, eskaeren eskasia azal lezakeenez, LEA bigarren deialdi bat berriz ateratzea erabaki zuen, lehenengoaren berdina, eta oraingo honetan, 5 eskaera jaso ziren eta 7 hilabeteko beka bat esleitu zen. Eguneratutako aurrekontua 1.450 eurokoa zen 2022rako eta 6.720 eurokoa 2023rako. Horietatik 563,22 euro exekutatu dira 2022an, eta 3.348,54 euro exekutatu dira 2023ko ekainerako, betiere beka esleitu zaion pertsonak beka amaitu arte jarraitzen badu 2023ko ekainerarte.

LEA/AVCren aldetik, egiaztatu da bekadunak ikasteko interes handia duela, eta haren aprobetxamendua nabarmena izaten ari dela. 2018-2022 Plan Estrategikoan jasotako helburuetako bat bete da, hau da, hainbat jardueraren bidez lehia sustatzea, eta horietako bat beka ematea da. Aldi berean, lehiaren arloko prestakuntza-eskaera gero eta handiagoari erantzun zaio.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Prestakuntza-orduen kopurua (bekadunak bekaldira amaitu arte jarraitzen badu: 2023.06.30)	900 h	715h